

“2013-2014 ikasturtean euren seme-alabak udal-haurreskolan matrikulatzen dituzten familientzako laguntzen deialdia.

Deialdiaren helburua eta onuradunak

Laguntzen deialdi honen bitartez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ezarritakoaren osagarri den sistema ezarriko da, 2013-2014ko ikasturtean seme-alabak Udal Haurreskolan matrikulatu dituzten familientzat.

Aurrekontu-kreditua

Behar besteko aurrekontu-zuzkidura dago, ekitaldi honetan banatu beharreko laguntzen kostuari aurre egiteko, 04 4221 481 08 kontu-sailean atxikitako zenbatekoa ez delako HIRU MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEI EUROTİK gorakoa izango (3.360 €). Era berean, aurrekontuen arloko organo eskudunak konpromisoa hartzen du, 2013ko ekitaldiko aurrekontuetan kasuan kasuko kredituak gordetzeko. Horrela bada, 2013-2014ko ikasturteko urtarrietik uztailetera arteko gainerako diru-laguntzen kostuari aurre egin ahal izango zaio. Kostu hori BOST MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEI EUROKOA izango da (5.880 €) gehienez ere.

Betekizunak eta eskabidea

Betekizunak:

1. Neska-mutikoak Udal Haurreskolan matrikulatuta eta Urduñan erroldatuta egon beharko dira, laguntza honetako onuradunak diren bitartean.
2. Familiek dirulaguntza eskatzeko orria bete beharko dute (I. eranskina). Bestela, familiek deialdi honetako laguntzei uko egiten dietela ulertuko da.

Eskabidea:

1. Eskabide-orria (I. eranskina).
2. Matrikulatutako umearen tutorearen NANen fotokopia.
3. Familia-liburuaren fotokopia.
4. Bankuko kontuaren zenbakia.

Eskabidea aurkezteko lekua

Eskabideak Udal Erregistroan aurkeztuko dira (Foru plaza 1) 9:30etik 13:30era, astelehenetik ostiralera.

Laguntzen ezaugarriak

Udal-laguntza hau ezarriko da, Urduñako Haur Hezkuntzako lehen zikloko plazen prezioak berdintzeko.

Udal-laguntzak emango dira, eskatutako zerbitzuaren prezioa gutxitu ahal izateko. Udal-dirulaguntza irailetik uztailetera egongo da indarrean.

Laguntzen bateragarritasuna

Dena dela, udal-laguntza Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandakoarekin izango da bateragarria, baita beste edozein dirulaguntza publiko edo pribaturekin ere, betiere laguntzen batura ezarritako prezio publikoa baino handiagoa ez bada.

Diru-laguntzaren zenbatekoa

Hileko laguntza 40 eurokoa izango da udal-haurreskolan matrikulatutako neska edo mutileko.

Eskabidean bertan, akatsen bat badago edo derrigorrezko agiri guztiak aurkeztu ez badira, administrazioak eskatu ondoren zuzendu beharko da eskabidea, jakinarazpenetik hasi eta hogeit hamar eguneko epean.

Esleitzeko prozedura

Laguntza honen ezaugarriak kontuan hartuta, esleipena onartuta egongo da, eskabidea egitean eta deialdi honetan zehaztutako betekizunak betetzean.

Diru-laguntzen ordainketa

Ordainketa bi epeetan egingo da, honako hilabete-tarte hauetan:

1. ordainketa, 2014ko urtarrilean: 2013ko irailetik abendura arteko epealdikoa.
2. ordainketa, 2014ko abuztuan: 2014ko urtarriletik uztaiera arteko epealdikoa.

Diru-laguntzaren aldaketa

Diru-laguntza esleitzean kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, laguntzaren esleipena bera ere aldatu ahal izango da.

Betearazpenik eza eta zehapenak

Urduñako Udaleko Udal Diru-laguntzak Esleitzeko Oinarri Orokorrek arautzen dituen Ordenantzako 18. artikuluan xedatutakoa ezarri beharko da.

Ezarri beharreko legeria

Deialdi honetan aurreikusita ez dagoen guztian, honako hauxe ezarriko da: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Urduñako Udaleko Udal Diru-laguntzak Esleitzeko Oinarri Orokorrek arautzen dituen Ordenantza; eta administrazio-arloko zein toki-araubideko kasuan kasuko beste edozein arau ezgarri."

Urduñan, 2013ko irailaren 10ean

DILIGENTZIA: Honen bidez, goiko diru-laguntzen deialdiaren oinarriak 2013ko irailaren 10ean Alkatetza Dekretu bidez onartu zirela jakinarazten da, jasota gera dadin.

Urduñan, 2013ko irailaren 10ean

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA

I. ERANSKINA

ESKABIDEA:

**2012-2013 IKASTURTEAN UDAL-HAURRESKOLAN MATRIKULATUTAKO UMEEN
FAMILIENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK**

Nik, _____
jaun/andreak, _____ NAN zenbakiduna, eta
_____ izeneko haurraren tutorea naizen
honek, aipatutako haurra udal-haurreskolan matrikulaturik egoteagatiko diru-laguntza
eskatzen dizuet, beti ere horretarako propio egindako deialdiaren oinarrietan zehaztutako
baldintzei eutsita.

* Harremanetarako datuak:

Posta helbidea _____

Telefono zenbakia _____

* Diru-laguntzaren abonua egiteko kontu-zenbakia eta bere titularraren datuak:

Nik, _____ jaun/andreak, _____ NAN
zenbakia eta _____ bankuko kontu-zenbakia dauzkat.

Urduñan, 2013ko _____ aren _____ (e)an

Sinadura: